

Bilkura kolektiboak bizitzaren erdigunean. Batasun emozionalaren eraginak gizarte kohesioan, ahalduntzean eta ongizatean

Tesiaren egilea: Jon Zabala Arando

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)

Saila/Institutua: Oinarrizko Psikologia Prozesuak eta Garapena Saila

Doktorego-programa: Gizarte Psikologia

Jakintza-arloa: Gizarte Psikologia

Tesi-zuzendaria: Aitziber Pascual Jimeno eta Susana Conejero López

Tesiaren laburpena:

Ia XX. mende osoan zehar, psikologiaren zientziak osasuna, autonomia eta independentzia bezalako balore indibidualisten baitan ulertu zuen. Pertsonen ongizatea eragin sozialetatik askea balitz bezala. Halaber, gaur egun, balio are indibidualistagoetan oinarritutako autolaguntza-industriak arrakasta ikaragarria du. Kohesio sozialak eta bereziki prozesu kolektiboek osasunean duten garrantzia ez da behar beste kontuan hartu.

Gizakiak bere garapen indibidual optimo baterako beharrezkoak ditu lotura-eta kidesun-sentimenduak. Ikerketek modu trinko batean erakutsi dute lotura-eta kidesun-sentimenduak osasun psikologiko eta fisiko hobeagoaz gain, bizi-itxaropen luzeagoarekin erlazionatzen direla. Baliabide sozial horiek, ordea, pertsonen eguneroko isolamenduan agortzen doazen baliabideak dira. Hori dela eta, gizabanakoek haien arteko kidesun-sentimenduak eraberritzeko beharritana dute. Horretarako, ezinbestekotzat dute aldizka erritu kolektiboak ospatzea.

Erritu kolektiboak, taldea eta taldekideak berpizten dituzten funtsezko fenomenoak dira eta funtzio sozial garrantzitsuak betetzen dituzte gizartearen eraikuntzan, iraupenean eta osasunean. Errituetan berretsitako batasuna-sentimenduen bitartez goratutako egora emozionalak, hau da eferbeszentzia kolektiboak, kohesio soziala areagotzeaz gain, gizabanakoak haien eguneroko bizitza indibidualari aurre egiteko ahalduntzen duen energia eraberritu batez hornitzen ditu.

Tesi honek, Emile Durkheim (1858-1917) soziologo aitzindariaren *eferbeszentzia kolektiboa* teoria babesten du. Era berean, fusio identitatearen —muturreko sakrifizio pertsonalen aldagai nagusiaren— jatorriari buruzko ezagutza urrian ekarpen garrantzitsuak egiten ditu.

Zehazki, euskaldun gizarte gutxiuaren kidesun-sentimenduek (1. artikulua) eta horiek eraberritzen dituen Korrika ekimenean hautemandako sinkronia emozionalak kohesio sozialean, ahalduntzean eta ongizatean duten garrantzia azpi-

marratzen dute. Lehenengo aldiz, *kama muta* (maitasunak hunkitua) bilkura kolektiboetan bereziki garrantzitsua izan daitekeen emozio bat bezala azaleratuz (2. eta 3. artikulua). Gainera, ohikoagoak diren bilkura kolektiboetan ere sinkronia emozionala hauteman daitekeela erakusten dute, eta batasun-sentimendu horiek bizitzan zehar ongizatearen garapen hobeago batekin erlazionatzen direla (4. artikulua). Azkenik, lan honek erakusten du bilkura kolektiboetatik haratago ere eferbeszentzia kolektiboaren aldaera bat sortzeko baldintzak sortu daitezkeela, zehazki, Twitter sare sozialean (5. artikulua).

Bilkura kolektiboak ez dira fenomeno anekdotiko hutsalak. Bizitzaren erdigunean aurkitzen dira, eta talde sozialen biziraupenerako ezinbestekoak diren eta pertsonen osasunean nabarmen eragiten duten fenomenoak dira. Isolamendua, bakardadea eta indibidualismoa areagotzen doazen garai hauetan, ikerketa hauen emaitzek are garrantzi handiagoa hartzen dute, eta osasun-arloak giza harremanei arreta gehiago eskaintzearen beharrezana azpimarratzen dute.